

Gaur hasiko da uda osoa hartuko duen esku pilota txapelketa

Aspe eta Baiko enpresetako pilotariek nahastuta jokatu dute Caixabank Mastersa; eskualdeko Jokin Altunak, Iñaki Artolak eta Erik Jakak hartuko dute parte txapelketan // 7

Gizarte zerbitzu publiko eta kalitatezkoak, aldarri

‘Orain Ardura’ ekimenak elkarretaratzea egingo du bihar, Villabonako Santiago egoitzan, 18:00etan; erakundeei erantzukizunez kudeatzea eskatuko diete // 6

Ñañarri jatetxea berritzeko obrak hiru aste barru amaituko dituzte

Erabilgarriago eta irisgarriago egingo dute, eta sukaldea ere berritu dute; jatetxeaz arduratuko den pertsona lehiaketa bidez aukeratu dute // 3



Astelehen arratsaldean egin zuten deialdia, mobilizazioarekin bat egin duten eragileek. IRATISAIZAR ARTOLA

Kalitatedun zerbitzu publikoak eskatzeko manifestaziora deitu dute

Hainbat eragilek egin dute larunbateko mobilizazioan parte hartzeko deialdia; 11:00etan Iurreamendin elkartuko dira eta 12:00etan irtengo da manifestazioa, Tolosako Plaza Zaharretik // 2



Audi A3 Sportback 40 e-tron

Entxufatu daitekeen Audiren teknologia hibridoa



Autowag Tolosa
Usabal industrialdea, z/g
20400 Tolosa
Tel. 943 67 35 81



audi.es/tfsie



150 kWko (204 CV) Audi A3 Sportback 40 e-tron. CO2 isuri konbinatuak: 43tik 46 g/km-ra. (NEDC: 43tik 46 g/km-ra). Kontsumo konbinatua (erregaia): 1,9-2 l / 100 km.



Astelehen arratsaldean prentsaurrekoa eman zuten deialdiarekin bat egin duten eragileek; askotako aldarrikapenak egin zituzten. I. S. A.

Zerbitzu publiko «indartsuen» defentsan, guztiak eskutik

Larunbateko mobilizazioan parte hartzeko deialdia egin dute hainbat eragilek; 11:00etan Iurreamendin elkartuko dira eta 12:00etan manifestazioa egingo dute

Irati Saizar Artola Tolosa

«Inoiz baino beharrezkoagoa da kalitatezko zerbitzu publikoak exijitu eta hori lortzeko elkarrekin borrokatu eta lan egitea», zioten Nekane Berriotxo eta Mila Canseco Oneka mugimenduko kideek, astelehen arratsaldean Tolosan egindako agerraldian. Ekainaren 27rako, larunbat honetarako, mobilizazioa antolatuko dute hainbat eragilek. Tarteran daude Pentsionisten Plataforma, Oneka, ELA, LAB, TOPA, To-

IRAGARKI LABURRAK

Lana

Lan eskaintza. Etxeko lanak egiteko pertsona euskaldun bat behar da. Interesatuak, deitu ondorengo zenbakira: 688760577.

losaldeko Asanblada Feminista, Ernai eta Zutani.

Pertsonen beharrak aseko dituen sistema bat eskatu dute, publikoa izango dena. 11:00etan Iurreamendi egoitzaren aurrean elkartuko dira bertako langile eta egoiliarrei elkartasuna adierazteko. Aurrez, 10:30ean, autoz joan nahi dutenak Santa Maria plazan elkartuko dira. Behin egoitzan bertan, minutu bateko isilunean egingo dute, manifestu bat irakurri eta dantza bat egin ostean, eraikinari buelta bat emango diote kalejiran, musika lagun dutela. Ondoren, 12:00etan egingo dute manifestazio nagusia Plaza Zaharretik abiatuta.

Pandemiaren eraginez sortu den krisialdira jendarte bezala «oso ahul» iritsi direla diote: «Zerbitzuak pribatizatuta, mu-

rrizketak nonahi eta prekarietatea etxe guztietara zabalduta». Zaintzak zein beharrezkoak diren konturatu direla azaldu dute, nola ordaindutakoak, hala dohainik egiten direnak. «Pertsona guztien oinarritzko beharrak ase egon daitezen ezinbestekoak dira giza baliabide zein material gehiago». Eta Iurreamendi egoitza izan dute gogoan, eta bere bueltan erakundeek izan duten «arduragabekeriak» utzi dituen «ondorio lazgarriak». Zaintza lanen aitortza politikoa egiteko garaia dela aldarrikatu dute.

Eskualdean osasun zerbitzu publiko baten beharra dagoela ere azpimarratu nahi izan dute. Gogorarazi dute ospitale publikorik ez duen eskualde bakarra dela Tolosaldea, eta «zerbitzu pribatu-kontzertatuaren mese-

detan» espezialitateen anbulatorioa «desegin» dutela ere esan dute. Kudeaketa ereduak berrikusteko eskatu dute, publiko eginez, eta langile guztien subrogazioa eta horiek finkatzeko salbuespenezko prozedura bat bermatuz. «Ez du balio erakunde publikoen izenpean zerbitzu guztiak azpikontratatzeari; ez dugu horrelako eredu sasi-publikorik nahi». Guztientzat izango den osasun publikoa beharrezkoa dela diote, baita elkar zaintza bermatuko duen sistema publiko bat ere, eta herritar guztiek elikadura zein etxebizitza eskubidea ziurtatuta izango duten jendartearen beharra dagoela adierazi dute, prekarietateetik urrun eta pentsio duina bermatuta. «Balkoietako txaloetatik kaleko borrokara igarotzeko garaia da», esan dute.

Udaberri dantza taldeko ikastaroetan izena emateko aukera, zabalik

Erredakzioa Tolosa

Udaberri dantza taldea datorren ikasturterako ikastaroak prestatzen ari da, eta dagoeneko zabalik da ikastaroetan matrikulatzeko aukera. Ekainaren 30a bitarte eman ahalko da izena, eta www.udaberri.eus webgunean egin daiteke.

Datorren irailetik hasi eta 9 hilabetez eskainiko dituzte entseguak Usabal kiroldegian. Uztail hasierarako taldeen ordutegiak finkatuta izango dituztela azaldu dute. Hala ere, irailean berriro zabalduko dute izen emateko aukera, eta kopuruaren arabera, itxaron zerrenda zabalduko dute.

Ikastaroetan izena eman ahaliko duten txikienak 2015ean jaio-takoak izan beharko dute. Horren aurretik jaiotako guztientzat zabalik izango dira ikastaroak.

Bihar banatuko dituzte literatura eta argazki rallyko sariak

BERROBI// Konfinamendua arintzeko asmotan Literatur lehiaketak eta Argazki Rallya antolatu zituzten Berrobin. Behin konfinamendua arintzen hasita sariak banatzeko tarte hartu nahi izan dute. Bihar bertan egingo dute bi lehiaketetako sari banaketa liburutegian. Literatur lehiaketan zazpi herritarrek hartu dute parte, eta 16 izan dira Argazki Rallyan parte hartu duten herritarrek.

Mikroipuin lehiaketako sariak, ipuin kontalariarekin

BERASTEGI// III. Mikroipuin lehiaketako sari banaketa larunbatean egingo dute, udaletxean. Ixabel Agirresorobe ipuin kontalaria izango da bertan, kategoria banatakoei ipuin bana kontatzen: 18:00etan 12 urte bitartekoentzat kontatuko du; 18:30ean 12 eta 16 urte artekoentzat; eta 19:00tan 16 urtetik gorakoentzat. Ipuin bakoitzaren ostean egingo da kategoria bakoitzari dagokion sari banaketa.

Astelehenetik aurrera Elorri pilotalekua erabilgarri egongo da

Alegiako Udalak frontoia zabalduko die herritarrei, baina ordubeteko txandak izango dira, hitzorduarekin

E. Maiz Alegia

Alegiako Udalak Elorri pilotalekua irekiko du astelehenean, hilaren 29an. Udal eraikin guztiek bezala, herritarrek baldintza bereziak bete beharko dituzte, eta astelehenetik ostiralera 16:30etik 20:30era erabili ahal izango da. Hitzordua hartu beharko da, eta ordubeteko txandak izango dira.

Erabili nahi duenak hitzordua hartu nahi den astearen aurreko ostegunera bitartean hartu ahal izango du ordua. 943 65 46 98 telefono zenbakira deitu beharko da 10:00etatik 13:00etara, edo kultura@alegia.eus helbide elektronikora mezua idatzi.

Kultur etxeko sarrera nagusitik sartu beharko da maskara eta guzti, eta erabiltzaileek harrerako arduradunari jakinarazi beharko diote iritsi direla. Identifikazio dokumenturen bat eraman beharko da. Ordubeteko txandak izango dira, eta aldiko gehienez lau pertsona sartuko dira. Momentuz ez dute asteko ordu kopuru mugarik jarri, baina egiten diren erreserbak aurreko asteko ostiralean konfirmatuko dituztela jakinarazi dute udalek. Ahalik eta erabiltzaile gehienek pilotalekua erabiltzeko aukera izatea dute helburu.

Saio bakoitzeko azken bost minutuetan erabiltzaileek ukitzen dituzten gainazal edo materialak desinfektatu beharko dituzte eskura izango dituzten produktuekin. Horrez gain, ur botilak, izerdia lehortzeko eskuoihalak... norberak bereak eraman eta erabili beharko ditu. Hori bai, bi eskuoihal eraman beharko dira: bat izerdia lehortzeko eta bestea gainazaletarako. Kaleko oinetakoekin sartzea debekatuta egongo da, beraz, pilotalekura sartzeko oinetakoak aldatu beharko dira. Aldagelak eta harmailak itxita egongo dira.

Herriko kirol taldeek eta bazkideek izango dute lehentasuna, eta ondoren, bazkide ez diren herritarrek izango dute aukera. Guztiei neurriak errespetatzea eta betetzea eskatzen zaie.

Larraizko Ñañarri jatetxean obrak ia bukatzeaz daude

Abaltzisketako Udalak aspalditik zuen Ñañarri jatetxea egokitzeko proiektua; hiru bat astean lanak bukatzea aurreikusten dute, eta arduradun berria ere aukeratua dute

Eneritz Maiz Etxarri

Abaltzisketa

Azken txanpan sartuta daude Abaltzisketako Larraitz auzoko Ñañarri jatetxeko obrak. Jon Zubizarreta alkateak adierazi duenez Abaltzisketako Udalak urte asko daramatza proiektu hau aurrera eraman nahian, eta «irrikaz» daude bukatzeko.

Otsaila aldean hasi ziren obrek. Gerora, bizi den osasun krisia dela eta, «lasai» hartu dituztela lanak azaldu du Zubizarretak, eta gauzak «ondo» egiten saiatu direla dio. Hiru bat astean irekitzeko moduan izatea aurreikusten dute.

Obra hauek egitearen beharra jatetxeak zuen gabeziak bat konpondu nahiak ekarri du: «Eraikinak tabernako barra oso txikia zuen, eta hasiera-hasieratik jatetxeak izan duen gabeziak bat hori zen». Lan hauekin, «barra txikia kendu eta taberna handiagoa egin dugu, eta bide batez, komun irisgarriak egiteko aprobetxatu dugu». Ez hori bakarrik, ordea, terrazari garrantzia eman nahian, kanpoko itxura ere aldatu diote: «Aurrealdeko itxura aldatu diogu terraza jartzeko egokituz. Nik uste dut polita gelditzen ari dela».

«Erabilgarriago eta irisgarriago izateko lanak dira, eta sukaldean ere ia guztia berria jarri dugu», gaineratu du. «Lehengoa jende askok erabilia zegoen, eta jada urte askokoa zen, eta momentu honetan lana ondo egiteko moduan dagoen eraikin bat dela esango nuke», argitu du Zubizarretak. Era berean, «buelta asko eman dizkiogun proiektua da, eta ez dakit asmatu ote dugun edo ez».

Obra «handia» izan da Abaltzisketako Udalarentzat. 250.000 euroko aurrekontua izan du, eta beste partida batetik, «sukalderako diren mahai tresnak edota beste hainbat material erosi ditugu», gaineratu du. Mota honetako lanak egiteko diru laguntzak behar-beharrekoak dituzte udalek, eta Eusko Jaurlaritzako Leader programatik jaso dute diru laguntza; obraren kostuaren %65a da laguntza-



Kanpoko itxura aldatzeaz gain, taberna ere aldatu dute. Taberna handiagoa izango du, barra luzeagoarekin. E. MAIZ

ren bidez ordainduko dutena. «Gurea bezalako udal batentzat laguntzarik gabe ez da bideragarria honelako obra bat egitea», nabarmendu du.

KUDEATZAILEA AUKERATUTA

Abaltzisketako Udalak lanak aurreratu ditu, eta obrak bukatzerako lehiaketa bidez aukeratua du Ñañarri jatetxeaz arduratuko den pertsona. Ofizioa ondo eza gutzen duen pertsona dela aurreratu du, eta Amezketan bertan bizi dela: «Konfiantza handia ematen digu».

Herrietako ostatuak sarri itxi eta irekitzen dira, baina toki ederrean dago kokatuta Ñañarri jatetxea. Jende asko gerturatu ohi den herria da Abaltzisketa, eta

batez ere, Larraitz: «Eguraldi onarekin jende asko ibili ohi da». Esperientziatik, Larraitz «zuria» eta «beltza» moduan definitu du Zubizarretak: «Eurria ari duen egun batzuetan argia ordaintzeko ere ez duzu ateratzen, eta ostera, eguraldi ona denean gainezka egon zaitezke».

Irekitzeko beharraz ere hitz egin du: «Momentu honetan bada behar bat. Larraitzen lau taberna ezagutu ditugu irekita, eta orain bakararra dago. Asteburuetan Larraitzek hartzen duen jende guztia errentzako taberna bat ez da nahikoa». Herriko jendearentzat ere onura delakoan dago: «Batetik bestera tragoak hartuz ibiltzeko edota azken batean, beste aukera bat gehiago da».

Aldiz, garbi du herritarrentzat ez dela lehentasunezko proiektua: «320 biztanleontzat nahikoa taberna eta gehiegi ere badaude lehendik ere, baina Larraitzek hartzen duen jende kopuruarentzako behar da», azaltzen du Zubizarretak.

Eta gaineratzen du: «Taberna bat irekitzean, ordea, lanpostu batzuk ere sortzen dituzu, eta guk hori ere nahi dugu. Herrian bertan lanpostuak sortzea beti izan da gure lehentasunetako bat».

Alde guztiak jarri dituztela mahai gainean esan du alkateak, eta «orain ikusiko da zein emaitza ematen duen».

Hala eta guztiz ere, «gustura» daudela dio, eta «ilusioz».



zozketak

Atarikideentzat bost sari ditugu



“Aralar, mundua leku den Lurra”
hiru sorta digipack eta liburuez osaturik.



“Garalar Maralar”
bi ipuin bilduma.

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 11:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus

Tolosatik abiatzen den arren, 4,7 kilometroko ibilbide lasai eta lauak, Ibarra zeharkatzen du alderik alde, baratzeak eta erreka bidelagun; San Joseko ermitan hartu behar da itzulerako bidea.

Ibarraren bihotzean, zubitik zubira

Asier Imaz Ibarra

Ibarra herrian itzuli bat ematen denean, agerian geratzen da nekazaritzaren garrantzia. Beste hainbat herritan, etxebizitzak eraikiko zituzten erdigune horietan, baina Ibarra oraindik baratzeak ikusten dira. Herriaren bihotzean nekazaritza, eta guztiaren erdian Ibarra-ko piper ospetsuak.

Ibarra alderik alde zeharkatzen duen ibilbidea, Tolosako tren geltokian hasten da. Oinez edo bizikletaz egiteko egokia da, laburra eta laua izaki, patxadaz hartzeko osteratxoak baita. Gelto-
kitik, zezen plazara joango da ibiltaria, ondoren, Oria ibaira gerturatzeke.

Tolosako ibai nagusiak bi aukera eskaintzen ditu; eskuinera edo ezkerreara joatea. Zezen plazari bizkar emanez, ezkerreara egitea proposatzen da ibilbide honetan, Zubi Berrira iritsi arte. Zeharkatu eta Ibarraren gertutasuna errepideko seinaleetan ikusiko da. Kasu honetan, ordea, ez zaio jaramonik egin behar errepideari. Zubi Berria zeharkatu ondoren, eskuinera hartu behar baita, garai bateko igerilekuetara gerturatuz. Etxe berriak eraiki zituzten bertan.

Errepidea gurutzatzeko garaia iritsi da. Eskuinera edo ezkerreara



Zumardiaundia zeharkatu behar da ibilbidea egiteko. R.C.

begiratu ondoren, zebrabidea zeharkatu behar da, Kondeane-ko aldapa eskuinean utziz. Oria atzean, eta Zumardi Handia aurrean, Berastegi erreken ondoan.

Puntu honetan beraz, bi ibai-aren artean aurkituko da ibiltaria. Berriro Tolosa aldera eginez gero, ibaiak nola elkartzen diren ikusiko litzateke, baina aurrera egin behar da, Ibarra helburu.

ZUBIRIK ZUBI

Tolosa eta Ibarraren arteko mugan hiru zubi daude, bata bestearen azpian. Ingurabidea, handiena, autoentzat bakarrik da; beste biak, oinezkoentzat eginak dira. Bat bera zeharkatu gabe, aurrera jarraitu behar da, Zumardi Handia zeharkatuz. Berastegi erreka ezkerrean dagoela, Ibarrako San Inazio auzora iritsiko da ibiltaria. Aurrerantzean ikusiko diren

zubi guztiak ezkerrean utzi behar dira, zeharkatu gabe. Errekari eta bidegorriari jarraituz, Arane iturria eta baserria, herriko plaza eta eliza, eta Azkue auzoa pasa behar dira. Bide horretan, baratzeak han eta hemen ikusten dira, emankortasunez gainezka. Azken zubia San Josekoa izango da, aldameneari izen bereko ermita duela. Horra iristean, itzulerako bidea hasteko garaia izango da.

Kasu horretan, herriko plazara gerturatzean, zubi zaharra zeharkatu behar da, Ibai Gain kalean gora eginaz. Ibarra zeharkatzen duen errepidea eta kalea izango dira ikusgai, Euskal He-

rria kalea. Tolosako noranzkoa hartu, beherantz doan maldaren arinean. Eskuin-ezker berriro ere soroekin egingo du topo ibiltaria. Ibarra sarrerako zubi handia urrun ikusten denean, Txumitxan, zubia zeharkatu behar da, joaneko bidearekin bat eginenez. Ibaia eskuinean, Zumardi

Tolosa eta Ibarraren arteko mugan hiru zubi daude, bata bestearen azpian

Zumardi Handia zeharkatuz, erreka ezkerrean, Ibarrako San Inazio auzora iritsiko da ibiltaria

Handira gerturatu behar da, baina oraingoan, ibaiaren beste aldetik joan behar da.

Bariantearen azpitik, zuzen joan behar da biribilgunera. Hortik aurrera, tren geltokira itzultzeko mila aukera daude. Hala eta guztiz ere, behin inguru horietara gerturatua, Tolosako Alde Zaharrean barrena ibiltzeko aukera galtzea bekatua litzateke.

Oria ezkerrean utzita, Zumardi Txikian barrena, Nafarroako Zubira iritsi behar da, eta hori zeharkatuz, Tolosako bihotzera. Zerkasua aurrean izango du ibiltaria, larunbateko azoka egiten den eremua, alegia. Gauzak horrela, beraz, larunbatero Tolosako eta Ibarrako bihotzek bat egiten dutela esan daiteke, barazki eta baserriko produktuen azoka gorpuztuz.

BAT EGIN GUREKIN!!

ATARIA IRRATIA: 107.6 FM eta ataria.eus/irratia

Goizean

- Aktualitatea
- Solasaldiak
- Elkarrizketak
-

Arratsaldean

- Euskal Herriko aktualitatea


Gauean

- Saio bereziak

Egin zure ekarpena

• Whatsapp bidez: **687 410 033**
Abestiak eskaini, zoriondu, albisteen berri eman, proposamenak egin, kexak....

ESKUALDEKO EUSKARAZKO IRRATIA



Solstizio kontzertu ederra

Bertan behera geratu ez den hitzorduetako bat izan zen herenegun; Urkizuko Udako Solstizio Kontzertua egin zuten Iraolako zuloan hogeita batgarren aldiz

Erredakzioa Tolosa

Et Incarnatus orkestrak urteroko kontzertua eskaini zuen herenegun, Urkizuko Iraolako zuloan. Koronabirusa dela eta, hitzordu gehienak bertan behera geratu diren honetan, emanaldi berezi hori izan da mantendu den bakarrenetarikoa, eta joateko aurrez izena eman behar bazen ere, herritar ugari gerturatu zen hitzordura, udako solstizioa ospatzera.

Urteak dira Migel Zeberio zuzentzen duen Et Incarnatus-ek Solstizio kontzertua eskaintzen duela bertan, izan ere, aurtengo 21. kontzertua izan da.

QR KODEAK



Felix Aiestaran Arozek-
nak prestatutako idar-
tzaia.



Solstizio kontzertuko
argazki eta bideoak.



Iraolako zuloan eskaini zuen herenegun Udako Solstizio Kontzertua Et Incarnatus orkestrak. A.I.

Euskal Herriko tontorrak musikaz blai

Urmuga ekimenak mendi zeharkaldiak eta musika kontzertuak uztartuko ditu

Erredakzioa

Tolosako Migel Zeberio eta Villabonako Xabier Berasaluze *Leturia* musikariak, batetik, eta orain 40 urte Everesteko Tximist euskal espedizioako kide izan zen Felipe Uriarte mendizaleak, bestetik, Urmuga zeharkaldia antolatu dute uda honetarako.

Musikak eta mendizaletasunak bat egingo dute ekimen horretan, baina ez bakarrik. Kultura eta hizkuntzaren garrantzia azpimarratuko dute eta 19 eguneko zeharkaldi baten bidez egingo dute. Angulo Bortun (Salvada mendilerroa, Araba) hasiko dute ekimena uztailaren 14an eta abuztuaren 1ean Hiru Erregeen Mahaiaren gailurrean (Añamendiak) bukatuko dute. Tartean 14 euskal musikariren

emanaldiak izango dira. Musika emanaldiak mendietan eta mendien inguruko herrietan izango dira. Modu honetan herri txikiak biziberritzeko helburua ere badutela diote antolatzaileek.

MENDEBALDETIK EKIALDERA

Ur isuriagatik Euskal Herria bi aldetan banatzen duen mugari egiten dio erreferentzia Urmuga izenak. Eta beraz, mendebaldetik ekialdera, Euskal Herri osoa zeharkatuko dute. Natura mugak gainditu, eta mugarik gabe arituko dira, hala ere.

Ekimenean parte hartzeko gehienez 30 lagunentzako tokia dute eta 948 51 32 33 edo 685 75 07 63 telefono zenbakietan edo info@mendiaketaherriak.eus helbidera idatzita eman daiteke izena.

EGITARAUA

1. etapa. Angulotik Orduña portua.
2. etapa. Orduña–Altube portua.
3. etapa. Altube–Barazar portua.
4. etapa. Barazar–Kruzeta portua.
5. etapa. Kruzeta–Arlaban.
6. etapa. Arlaban–Aumutegi–Usakoetxena.
7. etapa. Usakoetxena–Otzaurte portua.
8. etapa. Otzaurte–Lizarrusti.
9. etapa. Lizarrusti–Albiasu herria.
10. etapa. Albiasu–Orin–gaña.
11. etapa. Orin–gaña–Belate.
12. etapa. Belate–Urkiagalepoa.
13. etapa. Urkiaga–Ibañeta.
14. etapa. Ibañeta–Errozate.
15. etapa. Errozate–Burdinkurutzeta.
16. etapa. Burdinkurutzeta–Bagargiak.
17. etapa. Bagargiak–Larrainekolepoa.
18. etapa. Larrainekolepoa–Erraize.
19. etapa. Erraize–Hiru Erregeen Mahai.



Uztailaren 14an abiatuko dira eta abuztuaren 1ean amaituko dute abentura. ATARIA



Tolosan, Olarrain auzo inguruan eginda dagoen AHTaren ibilbidearen zatia. J. M.

AHTaren dirua gastu sozialetara bideratzeko eskatuko dute bihar

‘Orain Ardura’ ekimenak elkarretaratzea egingo du bihar, Villabonako Santiago egoitzan, 18:00etan hasita; Gizarte zerbitzu publiko eta kalitatezkoak aldarrikatuko dituzte

Erredakzioa Amasa-Villabona

Orain Ardura ekimena, krisi ekonomiko eta sanitario honetan, erakundeei funts publikoak kudeatzeko erantzukizuna eskatzen dien kanpaina da. «Pertsonen osasuna eta bizi baldintzak jokoa dauden honetan, azken horien ongizatea bermatzeko behar adina baliabideak ziurtatzea eskatzen dugu». Horretarako beste zenbait azpiegitura lan geldiarazi eta dirua gizarte beharretara bideratzeko eskatzen dute. Sortu berri den ekimenak oinarritzko beharrak asetzeko ez diren gastu «erraldi» bezala hartu ditu Abiadura Handiko Trena, Bilbo Handian egin asmo duten Hegoalde-

ko Trenbide Saihesbidea eta «porlanizazioaren sukarraldiko proiektu guztiak».

Joan den maiatzaren 26an hainbat kolektibo sozial eta sindikalek bultzatutako manifestu bat aurkeztu zuten Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan, osasun krisia gehien pairatu duten tokietan, ospitale eta zaharren egoitzetan. <https://orainardura.wordpress.com/helbidean/kontsultatu-daiteke-manifestua-eta-adostasuna-adierazten-dutenek-atxikimendua-gehitu-dieziaiketee>. Bultzatzaileek adierazi dutenez, manifestuak onespenez zabala izan du orain arte: 150 kolektibo sozial, ingurumenarekin loturiko talde, sindikatu eta 1.800 norbanako in-

guruk sinatu dute. «Eta hau kanpaina baten hasiera besterik ez da», adierazi dute *Orain Ardura* ekimenetik.

Bihar, osteguna, elkarretaratzeak egingo dituzte hiriburuetan eta baita zenbait eskualdetan ere. Tolosaldeari dagokionez, Villabonako Santiago egoitzaren atarian egingo dute, 18:00etatik aurrera. «Gaur egungo eta etorkizuneko belaunaldientzat hipoteka astuna ekarriko duten gizarte onurarik gabeko proiektuetan xahutzen den bitartean, gizarte zerbitzuetan baliabiderik ez dagoela salatuko dugu elkarretaratzean. Osasun eta gizarte zerbitzu publikoak eta kalitatezkoak indartzeko beharra aldarrika dezagun».

Bisita gidatu tematikoak egingo dituzte Fagus Alkizan

Erredakzioa Alkiza

Azken hilabeteetan COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz Fagus Alkiza interpretazio zentroaren eskaintza guztia etenda egon da, bai ikastetxeentzat, baita bisita gidatu tematikoak egin nahi zituztenentzat ere. Egoera bere onera itzultzen ari dela ikusita, bi bisita gidatu antolatu dituzte uztailearen 4rako eta uztailearen 25erako.

Alkiza Hernio mendiaren magalean dago eta naturagune aparta izateaz gainera, ekologikoki bali handikoa da. Horregatik, Natura 2000 Sare europarraren baitan aitorrita dago eta 2012an Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu zuten, besteak beste, Europar Batasunaren interesekoak diren espezieak bizi direlako bertan. Horien artean hegazti saraskijaleak daude: sai arre eta sai zuriak.

Fagus Alkiza interpretazio zentroak hegazti hauek hobeto ezagutzeko ibilbide gidatua prestatu du uztailearen 4rako eta Jabier Vazquez basozain izango da bide-lagun. Alkizako plazatik abiatuko

dira 10:00etan eta bi ordu inguru iraungo ditu irteerak. Ibilbidearen zailtasun maila ertaina dela esan dute antolatzaileek.

Uztailearen 25ean, berriz, zuhaitz lepatuak ezagutzeko aukera izango da Fagus Alkiza zentroaren eskutik. Hernioren gailurren azpian, pago motzen sail erraldi bat dago. Mendeen joan etorrian, gizakiak garaian-garaiko egoerara moldatu eta diru iturri berriak aurkitu behar izan ditu eta horrekin batera moldatu du basogintza. Gipuzkoako Foru Alkundiko teknikari den Balentin Mugartzak, arbasoengandik jasotako altxorak hobeto ezagutzeko gidari lanak egingo ditu bisitan. Ibilbidea haurrekin egiteko modukoa izango dela jakinarazi dute eta bi ordu inguruko iraupena izatea aurreikusten da.

Bisitetan parte hartu nahi dutenek aurrez izena eman beharko dute kultura@alkiza.eus helbidera mezua bidalita edo 688 604 466 telefono zenbakira deituta. Alkizarrentzako eta 12 urtera arteko gazteentzako doakoa izango da irteera, eta gainerakoek 4 euro ordaindu beharko dute.

Bi alkizarren lanak ikusgai Ekain galerian

ALKIZA // Koldobika Jauregi eta Elena Cajaravillek elkarrekin sortu duten *Sua* erakusketa ikusgai da Donostiako Ekain galerian, irailaren 15era arte. Jauregik bilduma eskultoriko berri bat sortu du eta Cajaravillek, ehun naturalak eta zilar harribitxiak erabiliz egin ditu lanak.

Trinketeko gimnasioa berriro ere zabalik

IRURA // Astelehenetik igandera egongo da zabalik gimnasioa 10:00etatik 21:30era eta erabil-tzaile bakoitzak egunean ordu-betez erabili ahal izango du. Aldez aurretik hitzordua eskatu behar da, aurreko asteke astelehenetik osteguna bitartean 688 87 48 96 zenbakian.

Hilberriak eta urteurrenak



Joakin Garcia Berregui

Ekainaren 22an hil zen 75 urte zituela

*LAB-eko delegatu ohia.
Egun handirarte.*



LAB
TOLOSALDEA

TOLOSA, 2020ko ekainaren 24an

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

**ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN**

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110€	• Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm): 160 €	• Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 €	• Harpidedunentzat 30 € bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Iritsi zaie partidak jokatzeko unea

Eskuzko pilotari profesionalek Caixabank Mastersa torneoa jokatu dute binaka, gaurtik hasita; bi enpresetako pilotariak nahastu egin dituzte bikoteak egiterakoan

Erredakzioa

Aspek eta Baikok atzo aurkeztu zuten uda osoa hartuko duen binakako esku pilota txapelketa: Caixabank Mastersa. Berezia izango da, izan ere, bi enpresetako pilotariak nahastu egin dituzte bikoteak osatzerakoan. Horrela, eskualdeko pilotariei dago-kionez, Aspek eta Baikoko pilotariak nahastu egin dituzte bikoteak osatzerakoan. Horrela, eskualdeko pilotariei dago-kionez, Aspek eta Baikoko pilotariak nahastu egin dituzte bikoteak osatzerakoan.

Zortzi bikote ariko dira lehian eta beste bostak horrela osatu dituzte: Bengoetxea VI.a-Martija; Elezkano II.a-Aretxabaleta; Ezkurdia-Aranguren; Olaizola II.a-Zabaleta; eta Urrutikoetxea-Irribarria. Txapelketa luzea izango da, bi itzuli izango baititu, bakoitza zazpi jardunaldirekin. Ondoren, aurreneko lau bikoteak finalerdietarako sailkatuko dira —lehena, laugarrenaren aurka ariko da, eta bigarrena, hirugarrenaren aurka—, eta bi partida horie-

tako irabazleek finala jokatu dute.

Jokin Altunak eta Imazek zabalduko dute txapelketa, gaur, Eibarko Astelena pilotalekuan, Ezkurdia eta Arangurenen aurka. Ekainaren 26an, ostiralean, Erik Jakak Zeanurin jokatu du, Albisu lagun duela, eta aurkariak Elezkano II-Aretxabaleta izango dituzte. Larunbatean, ekainaren 27an, Iñaki Artolak Bilbon jokatu du Rezusta atzean duela, Urrutikoetxea eta Irribarriaren aurka.

Caixabank Mastersak eskuzko pilota profesionalaren egutegia beteko du uda guztian zehar, eta irailaren bukaera aldera izango da torneoaren finala. Pilota enpresen asmoa da ondoren Binakako Txapelketari bukaera ematea, eta horren segidan Buruz Buruko Txapelketarekin hasi eta jarraian Lau eta Erdiko Txapelketa egitea. Egutegia estutu egingo denez, banakako bi txapelketen formatuan eragina izango du.



Imaz eta Jokin Altuna, Caixabank Mastersaren aurkezpenean. ASPE

«Berriz ere pilotari sentitzen ari gara eta hori positiboa da guretzako»

JOKIN ALTUNA PILOTARIA

I. Garcia Landa Amezketak

Binakako udako torneoari gaur emango zaio hasiera, Eibarko Astelena frontoian, 17:00etan hasiko den jaialdian. Torneokoa bigarren partida izango da, eta bertan Altuna III.a eta Imaz bikoteak Ezkurdia eta Aranguren izango dituzte aurkari. Lehenengo partidaren Peña II.a-Bikuña eta Salaberria-Mariekurrena II.a lehiatuko dira eta hirugarrenean Alberdi-Erasun eta Egiguren V.a-Untoria.

Azkenean iritsi dira partidak. Bai, eta alde horretatik oso pozik gaude. Gogo handiz geunden berriz martxan hasteko. Bihar [gaur] partida dugu, berriz ere pilotari sentitzen ari gara, eta hori positiboa da guretzako.

Nola zaude fisiko aldetik?

Konfinamenduan ondo prestatu gara, baina frontoian entrenatzen hasi garenean molestia batzuk izan ditut. Normala dela esaten dute, mugimendu batzuk egin gabe denbora dezente darabagu eta. Inor ez gaude ehuneko ehuneko, eta iruditzen zait hori kantxan nabaritu egingo dela. Garrantzitsuena hasieran ez lesionatzea da eta gero jokoa hobetzen joango gara.

Hain justu, nola sentitzen zara jokoaren aldetik?

Taldeakako bi entrenamendu bakarrik egin ditugu oraindik. Uztailaren lehen hasiko ginela esan ziguten, eta azkenean lehenago ariko gara, eta azkar etorri da. Entrenamendu aldetik pixka bat berde gaude, baina ea pixkanaka ondo jartzen garen.

Zer iruditzen zaizu sortu den binakako udako torneoak?

Pilotarientzako ona da. Egia esan, egon diren erabaki batzuekin pixka bat harrituta, baina berriak erabakitzen dute zeinek jakatu behar duen eta guri jokatzea tokatzen zaigu. Torneoa polita da, eta nik Imazekin oso gustura jokatu dut. Ondo konpontzen naiz berarekin, eta ho-

rez gain, maila oso altua ematen ari da azken urteotan. Espero dut bikote ona egitea.

Eta osatu diren bikoteak zer iruditzen zaizkizu?

Bikote batzuk ikaragarri indartsuak iruditzen zaizkit. Pilotari batzuk ez daude eta horrekin pixka bat harrituta nago. Pilotariok denbora honetan gure aldetik asko jarri dugu eta iruditzen zait gauzak hobeto egitea bazeudela.

Torneoarekin hasteko, Ezkurdia-Arangurenen dituzue aurkari.

Partida gogorra izango dela iruditzen zait, baina ez dakit nondik nora joango den. Denok antzeko egoeran gaude, eta ikusi beharko da partidetak materialarekin ea zer erritmotan jokatzeko gai garen.

Ez da txapelketa, torneo bat baizik, baina pilotari guztiak gogoz ariko zarete irabazteko.

Pilotarioi ilusio handia egiten digu, gainera puntuak emango dizkigu sailkapenerako, eta garrantzitsua izango da ahal den urrutien iristea. Baina pertsonalki garrantzia emango nioke udan ahal den maila onena ematea, minik ez hartzea eta irailera indartsu iristea.

Dirudienez, buruz-burukoa eta lau eta erdikoa ere jokatu dira urtearen amaieran.

Oso gustura gaude horrekin. Pilotariok hori nahi genuen, txapelketa guztiak jokatzea, eta gogo handiz gaude. Jendeak ere gustura hartuko du hori, adiskidezko partidak ikustea baino txapelketakoak ikustea gogokoago baituzte.

Apattan hasiko da Urrezko Banakako Aizkolari Txapelketa, larunbatean

Jexux Mari Mujika ibartarrak parte hartuko du txapelketan, uztailaren 11n

Erredakzioa Ibarra

Aurten ere, Urrezko Aizkolari Txapelketa lehiatuko da baina indarrean dauden osasun arazok direla eta, ekainean, uztailaren eta abuztuaren egingo da aurtengo edizioa. Hain justu, XXIII. Urrezko Banakako Aizkolari Txapelketa Apatta industriagunean hasi-

ko da, larunbat honetan. Txapelketan Jexux Mari Mujika ibartarrak parte hartuko du, baina aurrerago sartuko da lehian, uztailaren 11n zehazki.

Honako edizioan, bederatzi aizkolari hartuko dute parte. Mujikaz gain, Iker Vicente, Mikel Larrañaga, Julen Alberdi 'Txikia IV.a', Jon Rekondo, Ugaitz Mugertza II.a, Eneko Otaño, Ruben Saralegi eta Iñaki Azurmendi ariko dira. Finalerdietako fasean, 2019ko XXII. edizioko lehen hiru sailkatuak sartuko dira zuzenean, hau da, Iker Vicente, Mikel Larrañaga eta Julen Alberdi

'Txikia IV.a'. Final-laurdenetako irabazleen aurka lehiatuko dira, zozketaren aurreko hurrenkerari jarraituz.

Lehen final-laurdena izango da jokoan larunbateko saioan. Diva Pentsuak enpresak Apatta industriagunean duen lantegiaren aurrean jokatu da, 11:00etan hasiko den jaialdian. Jon Rekondok eta Iñaki Azurmendik neurtuko dituzte indarrak, eta irabazle suertatzen denak Iker Vicenteren aurka jokatuko du finalerdia.

Bigarren final-laurdena, uztailaren 4an izango da, bertan Ru-

ben Saralegi eta Ugaitz Mugertza II.a nor baino nor gehiago ariko dira, eta irabazlea Txikia IV.aren aurka lehiatuko da finalerdian.

Mujika hirugarren final-laurdenean ariko da, uztailaren 11n, eta Eneko Otaño izango du aurkari. Irabazleak Mikel Larrañagaren kontra jokatu du finalerdian. Finalerdietako hiru irabazleek finala jokatu dute abuztuaren lehen edo 2an.

Txapelketan zehar egin behar duten lana sei enbor ebakitzea izango da, hiru modalitate hauek: erlojuaren aurkakoa, abiadurakoa eta azken proba.

Egur Sport enpresak sustatzen du Urrezko Aizkolari Txapelketa, eta beste bi lehiaketa ere antolatatu ditu aste hauetarako, biak harri-jasotzekoak. Batetik, Hiru Hamarreko Harri-jasotze Txapelketa, gizonetakoek parte hartuko dutena, eta Emakumezkoen Harri-jasotze Txapelketa. Eskualdeko kirolaririk ez da izango ez txapelketa batean ezta bestean ere.

Larunbatean Apatta industriagunean egingo den jaialdian, txapelketa horietako saio bana izango da jokoan. Hiru Hamarreko Harri-jasotze Txapelketan, Urdax Magunazelaia eta Mikel Lopetegi *Urra* ariko dira nor baino nor. Emakumezkoen txapelketan, saioak banaka egingo dituzte, eta Apattakoan Udane Ostolaza ariko da.



ASTEAZKENA, 2020KO EKAINAK 24
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEAZKENA 24

AGENDA

Deialdiak

Bidania-Goiatz. Emakumeen Foroa berriro martxan. II. Berdintasun Planaren aurkezpena, 09:30ean.

Tolosa. San Joan eguna: 11:00. Meza nagusia (streaming bidez ikusgai) Andre Mari elizan. Ondoren, Udal Txistulari Bandaren San Joan zortzikoa. 16:45. Andre Mari elizan bigarren bezperak. 19:30. Kalean txaranga (streaming bidez ikusgai).

Tolosa. Ganso&Cia taldearen *Babo Royal* ikuskizuna haurrentzat, Zuzmardi Handian, 18:00etan.

Tolosa. Kontzertuak zezen plazan, 20:00etan hasita: Adi, Irati Etxeberria, Postal Kolekzionistak eta Xabi Bandini. (streaming bidez ikusgai).

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Eguraldia Iker Ibarluzearekin, eskualdeko berriak, eguneko elkarrizketa Miren Dobarran Hizkuntza Politikako sailburuordeari, eta helduekin solasaldia.

14:00. Entzuteko jaioak. Musika.

16:00. Zebraidea. Magazina.

18:00. Goizeko saioen onena.

20:00. (H)ari naizela. Bertsolaritza saioa, Imanol Artola Felix-ekin.

28 KANALA

11:00. Tolosako meza nagusia.

13:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

15:00. San Joan sua

16:00. Tolosako Meza nagusia

18:00. Isidro Larrañaga akordeoi emanaldia 2019.

21:30. Gaurkoan Tolosaldeak

FARMAZIAK

Gaur

VILLABONA. Egunekoa. J.M. Sanchez. Kale Berria, 34. 943 69 1130.

TOLOSA. Gauekoa. L. Azpiroz Galarza. Larramendikalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro beroa baina eze-gonkorra. Zeru hodei gehiago ikusiko dugu goizetik. Orokorrean erdi eta goimailako hodeiak izango dira. Arratsaldean bero-hodeiak garatu eta ekaitzetara joko du. Hala ere, ekaitzetarako proportzioa ez da handia eta leku gehienetan ateri eutsiko dio. Haizeak arratsalde erdira arte hego-ekialdetik joko du eta termometroa 33-34 gradura igoko da. Arratsalde erditik aurrera ipar-haizea sartu eta zertxobait freskatuko du.

Bihar. Are gehiago eze-gonkortuko da eguraldia. Goizean goizetik zerua hodeitsu xamar egongo da. Hala ere, goizean ateri eutsiko dio. Arratsaldean, ordea, bero-hodeiak ugaritu eta ekaitzetara joko du. Ekaitzak handi xamarak izango dira eta ez da bazter-tzen kazkabarra botatzea eta zaparrada gogorak izatea. Haizeak mendealdetik joko du eta tenperatura maximoa jaitsi egingo da, 27-28 graduan joz goia.

Tolosaldeko ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Komertzioari bultzada ematea izan du helburu Suspertu Tolosa kanpainaren lehen faseak; balantze baikorra egin dute udaletik, eta bigarren fasean ostalaritzari laguntzeko bonuak jarriko dituzte.

Ostalaritzari bultzada

Erredakzioa Tolosa

Suspertu Tolosa kanpainaren lehen fasea amaitutzat eman du Tolosako Udalak. Tolosako komertzioari bultzada ematea izan da helburua, eta udala gustura dago izan duen erantzunarekin. Bada, bigarren fasea ere martxan jarri du, eta oraingo honetan ostalaritza sustatzea izango da xedea.

Hilabete baino gehiago iraundu komertziora bideratutako bonuen kanpainak, eta Tolosako Udaletik balantze baikorra egin dute. Orotara, 151 saltokik parte hartu dute. Hiru asteko epean 4.600 bonu baino gehiago saldu ziren internet bidez. Saldu ez zirenak dendetan eskaintzeko aukera ere ahalbidetu zen, eta beste bi asteren ondoren, 6.634-ra igo da saldutako bonuen kopurua, 75.535 euroko laguntza emanez. Gauzak horrela, 226.605 euroko inpaktu ekonomikoa eragin duela herriko komertzioen bueltan kanpainaren lehen fase honek adierazi du udalak.

Udalaren esanetan, erantzuna «paregabea» izan da. «Parte hartze datuak bikainak izan dira, komertziantze zein herritarrei dago kienez». Hala, udalak herritarrek azaldu duten «konpromisoa» eskertu du. «Eskertzekoa da, izan ere, kanpainan parte hartuz saltokiak laguntzeaz gain, herria



Uztailaren 11n jarriko dira bonuak salgai. ATARIA

bera biziberritzen lagundu delako ekimenak», azpimarratu dute udaletik.

BIGARRENEAN, OSTALARITZA

Suspertu Tolosa proiektua bigarren fasean murgilduta dago, eta kasu honetan, ostalaritza sektorea laguntzea izango du helburu. Hala, jatetxe, taberna eta kafetegietarako 30 euroko salneurria, baina guztira 45 euroko balioa duten bonu-orriak jarriko dira salgai, uztailaren 11tik aurrera. Bonu-orri bakoitzak bost euroko bosna bonu, eta hamar euroko bina izango ditu. Bonu-orriak es-

tablezimenduan bertan erosi eta soilik bertan erabili ahal izango direla azaldu dute.

Kanpainan parte hartu nahi duten ostalariek izena eman behar dute, eta etzi, ekainaren 26a izango da azken eguna. Horretarako, udalean elektronikoki erregistratu beharko dute dokumentazioa. Informazio gehiagorako www.suspertutolosa.eus webgunea bisita daiteke, eta zalantzak argitzeko, merkataritza@tolosa.eus helbidera idatzi edo 943 69 74 54 zenbakira ere deitu ahal izango dela (10:00etatik 13:00etara) esan dute udaletik.



1 URDAIBAI BIRD CENTER

Bi lagunentzako bina sarrera

Aranzadi Zientzi Elkartea
Orueta 7, Gautegiz Arteaga
946 25 11 57
portuzar@birdcenter.org
www.birdcenter.org



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

harpidedun izateak badu saria zozketa

2 DONOSTIAKO AQUARIUMA

Bi lagunentzako bina sarrera

www.aquariumss.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**



3 MENDEXA AVENTURA PARK

Bi lagunentzako bina sarrera

mendexpark.com
688 85 62 83
MENDEXA

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**



Parte hartzeko deitu **902-82 02 40** telefono zenbakira edo sartu www.ataria.eus webgunean • Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.